

**ENTZUNALDIAREN ETA JENDAURREKO INFORMAZIOAREN TXOSTENA,
HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAREN URRIAREN 18KO 91/2023 FORU AGINDUARENA,
ZEINAREN BIDEZ PROZEDURA HASTEN BAITA UZTAILAREN 3KO 80/2019 FORU
DEKRETUAREN ERANSKINA ALDATZEKO. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN SAREA
BERRANTOLATU ZEN**

Ezarritako prozedurari jarraituz, gardentasunaren atarian argitaratu zen 2023ko urriaren 28tik azaroaren 20ra bitarte Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 18ko 91/2023 Foru Aginduaren testua, zeinaren bidez prozedura hasten baita uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko. Foru dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatu zen.

Aldez aurreko kontsultaren xedea da foru agindu berriaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta ordezkariak duten erakundeen iritzia jasotzea honako aldaketa hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru agindua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedek eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Herritarren proposamenak eta ekarpenak jasotzeko epea amaituta, ez da alegaziorik, proposamenik edo ekarpenik jaso Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 18ko 91/2023 Foru Aginduari dagokionez. Foru agindu horren bidez hasiera ematen zaio Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko prozedurari.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Alberto Urrutia Lecumberri
(Sinadura jatorrizkoan dago)